

Tortura

Antton Izagirre

Hauteskunde emaitzen gaurkotasunak ia oharkabeen estali du tortura zifren krudeltasuna. Lau mila eta gehiago herritarren torturen egiaztapenak ez dira, bizpahiru komunikabidetan baino, lehen albiste izatera iritsi. Hori guztia, Madrilgo Kongresuan biktimak omentzeko alderdi politikoez elkarretaratzea egin duten egun berean. Hailere, tortura salaketei aipamen bat bera ere ez. Haien errelatoan ez dago tokirik. Irabazleen errelatoa egiten ari dira. Hori guztia, tortura babestu, justifikatu eta ikusezin egin duten alderdiak berriz ere agintea nola lortu kalkuluak egiten ari diren egunotan.

Tortura, terrore ekimen nagusienetakoa izan da Euskal Herrian eta zigorgabetasun handienarekin aplikatu da polizia ziegetan eta galdeketa geletan. Eta ondoriorik latzena, erantzukizuna izan duten politikoak ageriko dena ezkutatzeko saiatu direla, zigorrik gabe jarraitzen dutela bai buru politikoez bai torturatzailere, zigorra jaso duten apurrek nagusiaren indultua jaso eta dominak irabazi dituztela, komunikabide askok errealitate hori estali egin dutela; eta hori guztia, Europaren bihotzean gertatu dela, guztion begi bistan eta jakinaren gainean.

Askotan hitz egin izan da bizia indarke-riaz kentzearen larritasunaz, eskubide

urraketaz, krudeltasunaz, saminaz... baina tortura latzenak jaso dituzten lagunek, kasurik onenean bizitza salbatu duten arren, pertsonaren bizitzaren zati handi bat galdu dute, haien duintasuna, nortasuna, gizatasuna zanpatzeko erabili izan baitute tortura eta berreskuratzea askori zail egingo zaio.

Aitortza, justizia, erreparazioa hitz hutsalak izango dira milaka torturatu horiek aintzat hartu eta erantzule politikoez eta egileei dagokien erantzukizuna beregan harrarazten ez zaien bitartean. Europako Giza Eskubideen Auzitegiaren lotsarako, espainiar Estatuak ustela izaten jarraituko du. •

Goazen!

Andoni Egia

Ekainaren 26ko hauteskundeak Kataluniako eta Euskal Herriko ezker independentistak irabazi zituen, Britainia Handian Europar Batasunaren inguruan egin zen erreferenduma Eskoziako independentismoak irabazi zuen modu berean. Hauteskundeak ez baititu inoiz boto gehien lortu dituenak irabazten, bai ordea bere helburuak lortzeko aukera gehien irekitzen zaizkion horrek.

Hauteskunde hauetan jokoan zegoena, eta galdu dena, 1936-39 eta 1978an bezala, estatu eredu bera izan da, ez Estatuaren Gobernua. Prozesu eratzailea edo erreforma konstituzionala. Eta hori inon sinetsi bada Euskal Herrian eta Katalunian izan da, ezbairik gabe. Horrek guztiak, eta PP hazkunde nabari batekin gailendu izanak,

izugarritzko frustrazioa eragin du/eragingo du espainiar jendartearen ehuneko zabal batean, eta euskal eta kataluniar jendartearen ehuneko are eta zabalago batean, espainiar Estatuan hain urgentea den eraldaketa sozialerako ezintasuna, objektiboki demostratzen den bitartean.

Agertoki berria. Aukeraz beteriko agertokia. Kataluniako prozesu independentistari hauspoa emango diona.

Edonola ere, agertokia guztientzat da berria. Krisi ekonomikoak aurretik eraman dituen gauzen artean, “betikoekiko” baldintzarik gabeko leialtasuna dago. Politika, identitatearen planotik praktikotasunaren planora pasatu da. Beraz, proposamenak, identitateetik jaiotzetik, jendearen eguneroko ezintasunetatik jaiotzera pasa-

tu behar dira. Batez ere eraldaketa nahi dutenen eremu politikoan, eta horrek ez du atzera bueltarik.

Azkar ibiltzeko garaiak dira, Estatuko eta nazioarteko ezegonkortasunak adierazten duen bezala, ziklo historiko berri baten atarian gaude eta ziklo berri horren gakoak interpretatzeko unea da. Proiektu independentistak ezegonkortasun hori elikatzen duten elementuak ase behar ditu, gehiengoaren behar eta desioak. Eta ez bihar, estatua edukitzerakoan, baizik eta gaur, elementuok asetzeko erremintak sortuz, instituzioetan eta kalean. Prozesu eratzailea abiatzea da independentzia lortzeko bide bakarra, eta auteraketa da gehiengoaren behar eta desioak asetzeko modu bakarra. •